



TAKIKARDIA SUPRABENTRIKULARRAREN AZTERKETA ELEKTROFISIOLOGIKOA ETA ABLAZIOA EGITEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Azterketa elektrofisiologiko bat eginda (EEF), zenbait arritmia diagnostikatu daitezke, hala nola zer arritmia suprabentrikular mota den eta zer pronostiko duen, bihotzean non sortzen diren eta zer nahasmendu eragiten dituzten. Horri esker, fokatu daiteke aplikatu beharreko tratamendua.

Arritmia-talde horren barruan, ohikoena da birsartze nodal aurikulobentrikularrak eragindako takikardia.

Ablazioa horrelako arritmiei aplika dakiekeen tratamendu bat da. Arritmiak sortzen dituzten fokuak lesionatzean datza, tentsio baxuko (irradi-frekuentzia) edo krioenergiako (hotz lokala) energia-korronte bat erabilia, eta horrek erredura baten antzeko lesio bat eragiten du arritmia eragiten duten fokuetan.

Zertan datza prozedura?

Zain femorala iztaian ziztatuz gero, kateter batzuk sartzen dira (kable oso finak, luzeak eta malguak), eta bihotzeraino bideratzen dira X izpien edo nabigazio-sistema ez-fluoroskopikoen bidez.

Aztertu beharreko arritmiaren diagnostikoa berretsita, bide osagarriaren kokapena bilatuko da (aritmia sortzen den fokua), eta, ezaugarriak zein diren, ablazioa egingo da, hala badagokio.

Zer beharko dut ebakuntzaren aurretik?

Diziplina anitzeko talde batek prozeduraren egokitasuna ebaluatuko du. Ebakuntzarako baimena sinatu beharko du.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean, jarri zure ohiko intsulina-dosia.
- Prozeduraren egunean ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita ondo komunikatu ahal izateko.

Beharrezkoa bada, eskuineko iztaiaren eremua soilduko dizute, hori etxean zuk zeuk egin ahal izango duzu, proba baino lehen.

Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate prozedura?

Ablazio mota anestesia lokala edo sedazio erabiliz egingo da; kasu horretan, anestesista batek baloratuko du.



Sarrera-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu. Barruko arropa eta objektu pertsonalak kentzeko ere esango dizute.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu ezkerreko besoan, ahal dela, prozeduran agian beharko dituzun sendagaiak emateko.

Prozedura nola egiten den:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltiko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, elektrokardiograma bidez zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Gorputza izara esteril batez estaltiko da, eta eskuineko izaia soilik utziko da agerian. Anestesia lokala emango zaizu, ekografia bidez gidatutako ziztada egingo den eremuan prozedura mingarria izan ez dadin.
- Kateterrak jarri ondoren, bide osagarria ebaluatzeko beharrezko probak egiten dira. Ablazioa egiten bada, ondoren bide osagarriaren blokeoa egiaztatuko da, eta orduan kateterrak kenduko dira eta izaian eskuzko konpresioa egingo da.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, eta prozedura batzuetan 4-5 ordura ere luza daiteke.

Zer egin behar dut proba eta/edo ablazioaren ondoren?

Eguneko ospitale kirurgikoan ospitaleratuta egongo zara, eta hurrengo 6-8 orduetan ohean atsedean hartzen egongo zara, hematomarik ez sortzeko prozedura egin ondoren.

Normalean egunean bertan itzuliko zara etxera.

Batzuetan odoljarri lokala ager daiteke, eta gau bat egon behar da ospitaleratuta, odoljarria kontrolatzeko.

Ezingo duzu jan prozeduraren ondorengo 2 ordu igaro arte.

Ezinbestekoa da zure etxean zain-ziztadari buruz ematen zaizkizun gomendioak jarraitzea eta egun batzuetan ahalegin fisikorik ez egitea.

Alta ematean, ondorengo jarraipen-hitzorduek emango zaizkizu arritmia-konsultarako.

KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE INTERBENTZIOAREN BIDEOA IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. KONEKTA ZAITEZ HEMEN:

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea



2. IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. KONEKTATU BERRIRO zure telefonoaren KAMERA eta ESKANEATU zure EBAKUNTZARI dagokion bideoaren QR KODEA:



4. Zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoa berrir
ikusi nahi duzun bakoitzean, azken **QR KODEA**
eskaneatu besterik ez duzu egin behar.